



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENSA-OHARRA

Bizkaiko 2013rako Aurrekontuak onartu dira

Gernikan, 2013ko zezeilaren 7an.

Bizkaiko Lurralde Historikoko 2013rako Aurrekontu Orokorrak gaur goizean onartu dira Gernikako Batzarretxean, Euzko Abertzaleak taldearen (EAJ) babesari eta Bizkaiko Popularren (PP) abstenzinoari esker. Bai Bilduk bai Euskal Sozialistek (PSE-EE) 6.578,4 milioi euroko kontu publikoen kontra bozkatu dabe; horreetatik, 136,2 milioi euro zorpetzeari jagoke.

Bozketa bi orduko eztabaidearen ostean egin da; bertan, talde batzarkideek euren jarrereak defendidu dabez, parte hartzeko zenbait txandatan. Aurrekontuen Foru Arauak Batzar Nagusien behin betiko onarpena jaso dau, bederlatzi bozketa egin ostean, bat Sail bakoitzeko, eta beste bat Testu Artikulatua berresteko. Guztiek izan dabe emoitza bardina: aldeko 21 boto (EAJ), kontrako 20 boto (Bilduren 12 eta PSE-EEren 8) eta 8 abstenzino (PP).

Talde sozialistak Batzar Nagusietan daukan bozeramaile Iñaki Egañak emon deutso hasierera eztabaidari, eta esan dau PNVren eta PPren artean lortutako akordioa “modu partidistan” lortu dala, “bizkaitarren interes orokorra” kontuan hartu barik. “Pobretzat”, “eskastzat” eta “txartzat” hartu dituan aurrekontuak onartzeko balio izan dauan “esperpentoa” da. Ironiaz, zorionak emon deusaz José Luis Bilbao ahaldun nagusiari, “ezelango ahaleginik barik” lortzearren, “kromoaldaketa” huts bategaz. Egañarentzat, onartutako aurrekontua “ez dator bat bizkaitarren beharrianakaz”, besteak beste, “ez daualako asmatzen lehentasunakaz, ez daualako gastu arrunta geldiarazoten, ez ditualako diru-bilketea eta iruzur fiskalaren kontrako borroka hobetzen, ez daualako inbersino publikoaren aldeko apustua egiten eta dana zorraren esku ipinten daualako”, laburbildu dau. Kexatu egin da, PNVk ez daualako onartu zuzenketa-eske sozialistarik, eta PPrenak baino ez dauzalako onartu; horreek “%038an hobetzen dabe aurrekontua”.

Zentzu berean, Bilduren bozeramaile Iruñe Sotok “antisozialtzat” hartu ditu Bizkaiko kontuak, “Bizkaiairen beharrianetatik oso urrun”. Era berean, kexatu egin da PNV-PP “tandem handiak” “zapalgailua” gidatu daualako, izan be, ez dau bere taldeak aurkeztutako 92 zuzenketa-eske partzialetakoa bat bera be babestu, nahiz eta horreen helburua “gizarte-beharrizanei erantzutea” zan. “AHTk, Kutxabankek eta politika fiskalak lotzen ditue”. Sozialistakaz bat etorri da, esatean akordioa “merkea” izan dala Foru Gobernuarentzat, eta gehiago egin eitekeala iruzur fiskalaren kontrako borrokan. Sotok adierazo dau kontuek “fiskalidate bidegabeta” erakusten dabela; izan be, ez dabe baliabiderik ixten enplegu politikak bultzatzeko edo udalei laguntzeko, eta, bitartean, inbersino “guratsuak” egiten ditue, eta, hortaz, “eskualde mailako itxitasun sozio-ekonomikoa” gertatzen da. Azkenik, Bilduren bozeramaileak –beraren ustez– Lehendakariak bultzatuko dauan soziedade publikoen %20ko murrizketea defendatu dau. “Noizko, Bizkaian?”, galdetu deutso Ahaldun Nagusiari.

Bere aldetik, PPren bozeramaile Esther Martínezek bere taldearen abstenzinoa defendatu dau; izan be, euren ustez, momentu honetan, “ahal danik eta konturik onenak” dira, nahiz eta “berandu” heldu. PNVgaz lortutako akordioak eta bere taldeak aurkeztutako 10 zuzenketa-eskeen onarpena “albiste ontzat” hartu ditu, “kontu honeek hobetu doguzalako”. Martínezek azpimarratu dau Gobernuari jagokonez “ekarpenetik, bultzadatik eta kontrolatik” behar egiteko



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

momentua dala, eta saioa amaitu dau esanez, “ez jakula gustetan beste batzuek guri uniformeak ipintea”, akordioa “eskuinekoen arteko besarkadatzat” hartu daben oposizinoako beste taldeei erreferentzia eginez.

Euzko Abertzaleak taldearen aldetik, Jon Andoni Atutxa bozeramaile ordezkioak aurrekontuak defendatu ditu; izan be, -beraren ustez- aurrekontuaren bost ildo nagusiak “mantentzeko” balio dabe, hau da, gastu soziala, enplegua sortzeko apustua, gaur egun martxan dagozan inbersino publikoko proiektuen finantzaketa eta, azkenik, 2013. urte honetan zorpetzea ez handitzea. PPri eskerrak emon deutzaz abstenzinoagaitik eta taldearen nahiz bere talde parlamentarioaren “erantzukizun-senagaitik”, beti be, “Bizkaiaren onerako”. “Ituna egin gura izan dauanagaz egin dogu ituna”, esan dau.

Bizkaiko Foru Aldundiko Sail bakotxari 2013rako esleitutako aurrekontua hurrengo da:

- Nekazaritza, 45.228.658 euro.
- Gizarte Ekintza, 478.279.957 euro.
- Kultura, 58.312.610 euro.
- Ogasuna eta Finantzak, 120.855.515 euro.
- Herri Lan eta Garraioak, 304.015.842 euro.
- Lehendakaritza, 69.723.346 euro.
- Ekonomia Sustapena, 78.765.578 euro.
- Ingurumena, 71.795.779 euro.

JASOTAKO ZUZENKETA-ESKE PARTZIALAK

Aurrekontuen zenbatekoak joan dan asteko zuzenketa-eske partzialen eztabaidetan egituratzen joan dira. Bizkaiko 2013rako aurrekontua aldatu egin da, PPren hamar zuzenketa-eske partzial eta EAJren beste bat gehitzearen ondorioz. Zuzenketok hurrengo sailei eragiten deutsee: Gizarte Ekintza, Kultura, Herri Lan eta Garraioak, Lehendakaritza, Ekonomia Sustapena eta Ingurumena. Ekimen abertzaleak akats bat zuzentzeko balio izan dau, hain zuzen be, Ekonomia Sustatzeko Sailaren aurrekontu testuan egoan akatsa.

Beste alde batetik, PPren zuzenketa-eskeek hurrengoak aurreikusten ebezan: 120.000 euroko partida UNEDentzat (Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitatea); 100.000 euro Bideozaintzako sistema bat instalatuko Lutxanako (Barakaldo) oinezkoentzako tuneletan; eta, 200.000 euro, Egirletako mendateko errepidean oinezkoentzako pasabidea eregiteko. Azken zuzenketa-eske horrek 1,6 milioi euroko beste esleipen bat erreserbetako konpromisoa jasotzen dau, hain zuzen be, 2014 eta 2015. urteen artean banatzekoa, helburu berbererako.

Zemendiaren 19ko Batzar Nagusietan erregistrautako aurrekontuen aldaketa nagusia hauxe da: 3 milioi euro esleitu ziran Aldundiak laguntza-sistemea abiarazo eian, Menpekotasun Legeak jasoten dauan I. Graduko menpeko personentzat. Era berean, Gizarte Ekintzako Sailean beste 65.000 euro gehitu dira, minusbaliotasunen bat daukien personak artatzeko zentro okupazionalan plaza gehiago eskaintzeko foru laguntzetarako. Gainera, 50.000 euroko beste ekarpen bat be gehitu da, adinekoei zuzendutako laguntza eta aholkularitza psikologiko eta juridikoko programa bat sortzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES

B I Z K A I A

Ekonomia Sustatzeko Sailean egindako aldatetegi jagokenez, aurrekontuek 300.000 euroko partida hartu dabe aintzat, Bizkaiko merkataritzari “mikrokredituak” emateko programa bat martxan ipinteko. Helburua da negozio barriak zabaldu edo egon dagozan negozioak mantentzeko mailegu txikiak emotea. Era berean, Ingurumen Sailak bere aurrekontuetan 100.000 euroko igoera izan dau, Bizkaiko aisialdi guneak mantentzera bideratutako programetarako. Era berean, beste zuzenketa-eske bat be jaso dau, Aldundiak URAgaz (Uraren Euskal Agentzia) hitzarmena sinatu daian, “zuzeneko eta berehalako” alerta sistema ezartzeko, Gobela ibaiaren balizko uholdeen aurrean bizilagunak ohartarazoteko. Azkenik, Kultura Sailean, esleipen ekonomikoa 100.000 euroan handituko da eta Bizkaiko kirol klubak beharrak betetzera bideratuko da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Aprobados los Presupuestos de Bizkaia para el año 2013

Gernika, a 7 de febrero de 2013

Los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2013 han sido aprobados en un pleno celebrado esta mañana en la Casa de Juntas de Gernika, gracias al apoyo del grupo Nacionalistas Vascos (PNV) y la abstención de los Populares Vizcaínos (PP). Tanto Bildu como Socialistas Vascos (PSE-EE) han votado en contra de unas cuentas públicas que alcanzan un importe de 6.578,4 millones de euros, de los que 136,2 millones de euros corresponden a endeudamiento y 1.435 millones se reparten entre los ocho departamentos de la Diputación foral.

La votación se ha producido tras un debate de unas dos horas de duración en el que los cuatro grupos junteros han defendido sus posturas en varios turnos de intervención. La Norma Foral de presupuestos ha recibido el plázet definitivo de las Juntas Generales después de producirse nueve votaciones, una por cada Departamento y otra para ratificar el Texto Articulado, todas ellas con el mismo resultado: 21 votos favorables (PNV), 20 votos contrarios (12 de Bildu y 8 del PSE-EE) y 8 abstenciones (PP).

El portavoz del grupo socialista en las Juntas Generales, Iñaki Egaña, ha abierto el debate diciendo que el acuerdo alcanzado entre el PNV y el PP, necesario para la aprobación de las cuentas públicas, se ha obtenido en “clave partidista” sin tener en cuenta el “interés general de los vizcaínos”. Es un “esperpento” que ha servido para aprobar unos presupuestos que ha definido como “pobres”, “insuficientes” y “malos”. Ha felicitado irónicamente al Diputado General, José Luis Bilbao, por conseguirlo “sin ningún tipo de esfuerzo”, con un simple “cambio de cromos”. Egaña ha manifestado que el presupuesto “no está a la altura de las necesidades de los vizcaínos”, entre otras cosas, porque “no acierta con las prioridades, no ataja el gasto corriente, no mejora la recaudación y la lucha contra el fraude fiscal, no apuesta por la inversión pública y lo fía todo a la deuda”, ha resumido. Ha mostrado su malestar por que el PNV no haya aceptado ninguna enmienda de su grupo y sólo haya aprobado las del PP que “mejoran el presupuesto en un 0,38%”.

En la misma línea, la portavoz de Bildu, Irune Soto, ha tachado las cuentas de Bizkaia de “antisociales”, “muy lejos de las necesidades de Bizkaia”. Se ha quejado también de que el “gran tandem” PNV-PP ha conducido una “apisonadora” para no apoyar ninguna de las 92 enmiendas parciales presentadas por su grupo, cuyo objetivo mayormente era “cubrir las necesidades sociales”. “Les une el TAV, Kutxabank y la política fiscal”, ha añadido. Soto ha coincidido con los socialistas en que el acuerdo ha resultado “barato” para el Gobierno foral y en que podía haber sido una herramienta para luchar más contra el fraude fiscal. La portavoz de Bildu ha manifestado que las cuentas contemplan una “fiscalidad injusta” que deja sin recursos para impulsar políticas de empleo o para apoyar a los ayuntamientos, mientras se realizan inversiones “caprichosas” y se produce un “abandono socio-económico comarcal”. Por último, la portavoz de Bildu ha defendido la reducción del 20% de las sociedades públicas que va a impulsar –según ella– el Lehendakari Urkullu. “¿Para cuándo en Bizkaia?”, ha preguntado al Diputado General.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por su parte, la portavoz del PP, Esther Martínez, ha defendido la abstención de su grupo por ser las “mejores cuentas posibles” en estos momentos, pese a llegar “tarde”. El acuerdo con el PNV y la aprobación de las 10 enmiendas presentadas por su grupo las ha definido como una “buena noticia”, porque “hemos mejorado estas cuentas”. Martínez ha subrayado que es el momento de trabajar desde “la aportación, el impulso y el control” al Gobierno. Ha cerrado la sesión diciendo que “no nos gustan que nos pongan uniformes”, en referencia a la intervención de los otros grupos de la oposición que han definido el acuerdo como el del “abrazo de las derechas”.

Por parte del grupo Nacionalistas Vascos, el portavoz suplente Jon Andoni Atutxa ha defendido las cuentas aprobadas porque sirven –según él- para “mantener” las cinco líneas maestras del presupuesto como son el mantenimiento del gasto social, la apuesta por la creación de empleo, la financiación de los proyectos de inversión pública actualmente en marcha, el mantenimiento de los servicios públicos y, en último lugar, la congelación del endeudamiento para este año 2013. Ha agradecido al PP su abstención y el “sentido de responsabilidad” de esta formación y de su grupo parlamentario “en beneficio de Bizkaia”. “Hemos pactado con quien ha querido pactar”, ha dicho.

El Presupuesto asignado a cada Departamento de la Diputación Foral de Bizkaia para el año 2013 será el siguiente:

- Agricultura, 45.228.658 euros
- Acción Social, 478.279.957 euros
- Cultura, 58.312.610 euros
- Hacienda y Finanzas, 120.855.515 euros
- Obras Públicas y Transportes, 304.015.842 euros
- Presidencia, 69.723.346 euros
- Promoción Económica, 78.765.578 euros
- Medio Ambiente, 71.795.779 euros

ENMIENDAS PARCIALES RECOGIDAS

Las cuantías presupuestarias aprobadas para cada departamento se moldearon la semana pasada en los debates de las enmiendas parciales. El presupuesto de Bizkaia para el año 2013 se ha modificado tras la incorporación de diez enmiendas parciales del PP y una del PNV, que afectan a diferentes programas de los departamentos Acción Social, Cultura, Obras Públicas y Transportes, Presidencia, Promoción Económica y Medio Ambiente. Las enmiendas recogidas corresponden a los acuerdos alcanzados entre estas dos formaciones en el pacto que suscribieron el pasado día 25 de enero y que contempla acuerdos por valor de 5,5 millones de euros.

La iniciativa nacionalista ha servido para subsanar una errata en el texto presupuestario. Por su parte, las enmiendas del PP, aceptadas por el PNV, incluyen una partida económica de 120.000 euros para la UNED (Universidad de Educación a Distancia), 100.000 euros para la instalación de un sistema de videovigilancia en los túneles peatonales de Lutxana en Barakaldo, y 200.000 euros para la construcción de una pasarela peatonal en la carretera del Alto de Santo Domingo. Esta última enmienda incorpora el compromiso de reservar otra asignación de 1,6 millones de euros a repartir entre los años 2014 y 2015 para este cometido.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La modificación principal en los presupuestos que fueron registrados en las Juntas Generales el 19 de noviembre, corresponde a los 3 millones de euros consignados para que la Diputación ponga en marcha un sistema de ayudas para las personas dependientes de Grado I que recoge la Ley de Dependencia. También en el departamento de Acción Social se añaden 65.000 euros para ayudas forales destinadas a ofrecer más plazas en centros ocupacionales a personas discapacitadas y otra aportación “extra” de 50.000 euros para la creación de un programa de apoyo y asesoramiento psicológico y jurídico para personas mayores.

En cuanto a los cambios en el área de Promoción Económica, los presupuestos incorporan una partida de 300.000 euros para la puesta en marcha de un programa de “microcréditos” al comercio vizcaíno, que irá dirigido a la concesión de pequeños préstamos para apoyar la apertura de nuevos negocios o su mantenimiento. Asimismo, el departamento de Medio Ambiente recoge en sus presupuestos un incremento de 100.000 euros en el programa destinado al mantenimiento de las áreas de esparcimiento de Bizkaia, y un compromiso para que la Diputación acuerde con URA (la Agencia Vasca del Agua) la implantación de un sistema de alerta “directa e inmediata” a los vecinos ante posibles inundaciones del río Gobela. Por último, en el área de Cultura, la Diputación aumentará en 100.000 euros la asignación económica destinada a cubrir las necesidades de los clubes deportivos de Bizkaia.